

EUOPAR HERTZAK LOTZEN

Europako hainbat txokoetako hamaika proiektu artistiko Donostiako Amara auzora egokitu ditu 'Corners of Europe' ekimenak. Donostia 2016 Europako Kultur Hiribiruaren barnean, auzoko eragile eta bizilagunek proiektuotan esku hartu dute; baita garatu ere. Ia 30 artistek gauzatutako dantza, ibilbide gidatu, erakusketa eta proiektzioak izan dira ikusgai irailaren 19tik urriaren 2ra bitarte Amarako karraketan.

"Ekimen hau ezingo dugu sarrera kopuruaren edo ekitaldi amaierako su artifizialen ikusgarritasunaren arabera neurtu. Artearen bitartez, jendea euren artean kontaktuan jartzea du xede; pertsonak pertsonekin kontaktuan jartzea". Argi eta garbi hitz egin zuen Chris Torch 'Corners of Europe' proiektuaren sustatzaileak ekimenaren aurkezpenean. Hamabi bazkide zuzen eta hogeit hamar kolaboratzaile baino gehiago ditu proiektuak eta zenbait erakunderen europar sare baten parte ere bada. Hori gutxi balitz, Chris Torch buru den 'Europa Sortzailea' kultur-programaren dirulaguntza ere jaso du. Hala, orain, lau urteko lanketaren ostean, hamabi lekutako artisten lanak izan ziren ikusgai Amaran. Baina, zertan da, zehazki, proiektua?

"Egungo praktika artistikoak herritarrengana eramatea zen asmoetako bat; proiektu artistikoentzat ezohikoak diren lekuetan lanok txertatzea artearentzat izan ohi diren leku ejemonikoak suntsituz. Europako izkinetan, periferian diren gunek aldarrikatu nahi genituen", azaldu zuen Pablo Berastegui Donostia 2016ko Zuzendari Nagusiak. Horretarako, 2012tik hona artistek kontinentean barna egindako bidaietan izan zuten lanok iturburua. Honez gain, errealitate desberdinei buruzko informazioa batzea eta aztertzea ere bazen helburua, bazkide sareak sortzea, sortzaileen arteko lankidetzarako plataforma jasangarri bati bide emanez.

"Orain dela bost urte bazkide talde batek Europako mapa hartu, eta, begiratzen hasi ziren. Kultur erronkarik

garrantzitsuenak periferian gertatzen ari zirela konturatu ziren orduan, eta, une horretantxe, erabaki bat hartu zuten: kontinentean zehar artisten espedizioak gauzatzea eta sareak sortzen hastea Europako hainbat herrialdetan: Kaukason, Polonian, Ukrainian, Kaliningradon...". Orain, azken lau urteotan artistek egindako lanak Estokolmo (Suedia), Belfast (Ipar Irlanda), Blyth (Ingalaterra), Ljubljana (Eslovenia), Zagreb eta Rikeja-n (Kroazia) ikusi ahal izan ziren Donostiara iritsi baino lehen.

Donostia 2016ek lau hilabete eman zituen, hain justu, jo eta ke prestaketa lanetan. Torchen esanetan, "euren lana egiteko, artisten arteko 500 topaketa baino gehiago eduki izana da, egiazki, garrantzizkoena. Nazioarteko artistak lotzeaz gain, auzoko jendea ere lotu zuten-eta ekimenok". Orobat, Berasteguik honakoa gaineratu zuen: "Herritarren parte-hartzea izan zen ekimen honen parterik interesgarrienetakoa. Aukeratutako Amarako leku zehatzean jartzeko, bertako auzotarrekin batera, moldatu zituzten proposamenak".

Izan ere, herritarren parte-hartzea zen-eta Cornerseko zutabe nagusietakoa: Europako leku frankotan garatutako zenbait espedizio eta aurkezpenetan bizitakoa herritarrekin partekatu eta osotu zuten, hain zuzen ere. Nonahiko herritarrek esku hartu zuten lan batzuetan, eta, beste batzuetan, berriz, agente eta eragile zehatz batzuk izan ziren kolaboratu zutenak, tartean, Ernest Lluch Kultur Etxea, Easo Politeknikoa, Peñafiorida Institutua, Amara Berri Ikastetxea, Deustuko Unibertsitatea, Ernest Lluch K.E. (Amarauna), ESCIVI, TAE, Caritas, Ubako Abegi Etxea eta abar. Berebat, Danele Sarriugarte eta Harkaitz Cano ere tokiko agente izan ziren.

Hala, makina bat elkarte, talde, eskola eta agentek baiezkoa esan zioten beso zabalik. Amara Berriko auzo elkarteko kide Paloma San Josek, adibidez, proiektu honen zolu eta oinarri gisa auzoa hautatu izana biziki eskertu zuen. "Ekimena oso garrantzitsua da guretzat, auzoa hilik baitago apur bat, eta, aktibatu beharra dugu. Lehen zentro ofizial dezente genituen, baina, orain, dena Amaratik at

joan da. Pobre xamar gaude eta jendearen parte hartzea behar dugu”.

Miren Azkarate Donostia 2016ko zinegotzi delegatuak bat egin zuen Amaran proiektua gauzatzearen ideiarekin: “Donostiaren barruan, batez ere Amara auzoa egotea, Gobernu Zibiletik harantzago doan hori egotea, gure hertz hori ere inkorporatzea, oso ondo dago. Proiektu inportantea da eta beste askoren eredu”.

Honez gainera, gazteen eta kulturaren arteko uztarketa azpimarratu zuen Azkaratek eskola mundua eta artea edo kultura elkarrengana hurbiltzeko ahalegin gisa. “Hemen hainbat eskola eta unibertsitate baditugu, horiek parte hartzen duten neurrian, txikitatik ari gara gure gazteak sorkuntzara eta parte-hartzera hurbiltzen. Beraz, kultura ez da Olinpoan dagoen zerbait; gauza txikiak dira, lehen unean ikasteko zailagoak direnak, baina azkenean benetan hauek dira gizarte sarea eraikitzen dutenak”, azaldu zuen Azkaratek.

Diziplina anitzeko proiektuak

Lan hauek guztiak ez ziren diziplina bakar batean sartzen. Izan ere, nazioarteko hainbat jatorritako artistez eraikita baitzeuden, herritarren ekarpenekin osotutakoak, gainera. Donostia 2016en barnean, ‘Hazitegiak’ eta ‘Corners’ proiektuko buru dugu Iker Tolosa: “Tokian tokiko errealitatera egokitzearena izan da artisten lana, euren proiektua auzoarekin, bertako agenteekin eta testuinguruarekin eraikitzen amaitzea”.

Kurrikulum zabaleko artistak dira, eskarmentu handikoak, gainera. “Ikuspegi hauen guztien emaitza da, ezbairik gabe, ‘Corners’ en balio nagusienetako bat; artistok euren errealitateak beste artista batzuekin eta euren errealitateekin nola aurrez aurre jartzen dituzten, nola leku bakoitzeko arduradunek beste egiteko modu batzuk ikasten ditugun; kultur kontua hobeto ulertu, zenbateko antzekotasunak eta desberdintasunak ditugun kontinente honetako gizarte eta kulturek; hori da, funtsean, garrantzizkoena”, azaldu zuen Tolosak.

Euskal artistei dagokienez, sei izan ziren proiektuan aritu zirenak: Ixone Ormaetxe, Beatriz Churruca, Juan Aizpitarte, Joseba Irazoki, Asier Zabaleta eta Borja Ruiz. Lehenaren aburuz, "batzuetan artistak ikustezinak gara gizartearentzat; eta hor gaude, kalean gaude lanean, euria egiten du, hotza pasatzen dugu, eta, gure lana, gure prozesua jendeak ikustea, galdetzea, artea zerbait bitxia ez dela ikustea, baizik eta bizitzaren parte dela ikustea, hori da, azkenean, gure grina. Oso lan polita eta gogorra izan da, baina, azkenean, esperientzia ahaztezina".

Kultura, esperientzia, ikuspegi eta molde horiek guztiak lotzen dituzten hamaika ekimen izan ziren, hain justu, Cornersen barnean irailaren 19tik urriaren 2ra bitarte ikusgai izan zirenak. Honatx, proiektuak, banan-banan:

'Hide or Reveal'. Donostiako DBUS 26 lineako bi autobusetan jarritako argazki instalazioa zen. Bidaiaren zentzuaren inguruko hausnarketara bultzatu nahi zuen ikuslea. Kazajistanen eta Uzbekistanen egindako espedizio batean oinarrituta, Helena Wikströmek hartutako argazkiok siluetatu eta binilatuta jarri zituzten autobusetan. Hortaz, bidaia horretan ikusi zituztenak Amarakoetan ikustea zen helburua. Bidaiaren kontzeptuaren inguruko testu poetikoak bazeuden.

'Bridging the Silence'. Lau egunetan jarraian izan zen soinu instalazio bat dugu, esperientzia katartikoa bizi izan zuten pertsonen testigantzetan oinarritutako proiektu hunkigarria. Irailaren 28 eta 30ean, 16:30etatik 20:30etara, eta, urriaren 1ean, 10:00etatik 14:00etara, Mikel Laboa pasabidean ikusgai izan zen instalazioa. Errealitate ezkutuak lantzen zituzten proiektuok, Europako periferiak, bai geografikoak, baita sozialak eta politikoak ere. Kasu honetan, bata, Hrvoslava Brkusic, Balkanetatik zetorren, bestea, Deirdre Cartmill, Belfastetik, eta, hirugarrena, Beatriz Churruca, Euskal Herritik. Konturatu ziren hiruek oso esperientzia katartikoa jasan zutela: politikoa; baina bidaian aurrera egin ahala biolentzia domestikoan eta beste hainbat esperientzietan ibilitako

jendeak ibilbide emozional berdina pasatzen duela konturatu ziren; ibilbidearen liseriketa nola egin duten ikusi ahal izan zuten.

'In Between'. Ferrerías plazan izandako bi asteko esperientzietan oinarrituta, Europako bost jatorritako artistek beste ikuspuntu bat eskaini zuten, irailaren 30ean 20:00etan izandako performancean, eta, irailaren 21etik urriaren 2ra Anoetako topo geltokian izandako erakusketaren bidez plazaratuz. Juan Aizpitarte, Sinisa Labrovic, Elvin Flamingo (Jaroslaw Czarnecki), Helena Wikström eta Davor Sanvincenti izan ziren artistok. Euren begiradan oinarritutako esperientzia izan zen, hain zuzen ere. Europako beste auzo batzuetan ere eginga dute, bertan murgilduz, auzotarrekin harremanduz: artisauekin, plazako jendearekin... Horien bidez auzoari edo, kasu zehatz honetan, plazari, beraien begirada erakutsi zuten, baina auzotarrekin izandako hartu-emanaren ostean.

'Amara Safari'. Easo Plazan kokatu pop-up denda edo bidaia-agentzia batean bildu zituzten Amarako txoko eta pertsona ez agerikoetan oinarritutako ibilbide gidatua. Bi egunez, lau sesio izan ziren. Auzoa beste begi batzuekin ikusteko aukera izan zen. Alegia, turismo-industria handiak erabiltzen dituen mekanismo berdinak hartuta, hots, bisita gidatuekin, baina ibilbide 'performatizatu' gisa. Elementu arkitektoniko handiak edo gauza ezagunak aurkeztu beharrean, auzoaren beste istorioak, mikro historia horiek kontatu zituzten. Kasu honetan, Deustuko Unibertsitateko lau ikaslerekin elkarlanean landu zuten proiektua Isabella Mongelli, Milos Tomic eta Maria Anastassiou artistek.

'Put Yourself in My Place'. Erakusketa artistikoa baino, dokumentala izan zen Ernest Lluch Kultur Etxean irailaren 20tik urriaren 1era izandako erakusketa. Suediar Ida Hansson eta kroaziar Milijana Babic artisten arteko esperientzia trukaketa baten erregistroa erakutsi zuen. Urtebeteko prestakuntzaren ondoren, hiru astez euren bizitokiak elkar trukatu zituzten. Hor hainbat gauza atera ziren: emakumezkoa, ezkongabea, seme-alabarik gabea eta artista: Gizarteak zu arraro begiratzeko boleto guztiak.

Eta artista izaera horrek nola eragiten dien euren artista sen eta sorkuntza horretan eta gizarteko ikuspegi horretan distantziatik, perspektibarekin ikusteko.

'Sister of Another Mama'. Berria egunkariko zuzendari Martxelo Otamendirekin izandako elkarrizketa batetik sortutakoa, baina asko garatutakoa dugu. *Mass media* edo egunkarietan inoiz azaltzen ez diren istorio horiek izan ziren protagonista. Hemengo sei artistek etxetik ekarri dituzten kontuak, anekdotak hartu eta horiek hainbat artisten diziplinetatik pasata, argitalpen batean bildu zituzten. Joseba Irazoki, Mila Pavicevic, SIMKA- simon Häggblom eta Karim Lind izan dira egileak. Aldizkari hau performance parte-hartzaile baten bitartez aurkeztu zuten urriaren 1ean, 19:00etan, Nesto Basterretxea plazan. Jendeari bere historia kontatzeko parada ere eman zioten.

'Windows'. Proiektuan Arkaitz Cano idazleak kolaboratu zuen. Espazio pribatuan esaten ez diren eta bizilagunen hainbat gaien inguruko iritziei buruz diharduen performance parte-hartzailea dugu. Asier Zabaleta eta Michael Hanna dira egileak. Bertaratu den orok esku hartzeko parada izan duen proiektua da honakoa: gidoia bati jarraikiz, galdetegi bat bete zuten auzotarrek, eta, Donostiar Kofradiak kaleko bizilagunei led argi gorri eta berdeak banatu zitzaizkien. Hala, muntaiari antzerkia eta dantza egin zituzten; tarteka, bizilagunek esan zituzten galdera lokalei edo existentzialei erantzun zieten argien bidez.

'Flashes'. Kosovoko DOKUFEST zinema-jaialdiko dokumental politiko eta sozialen inguruko erakustaldia. Amara Zaharreko frontoian, irailaren 28 eta 30etan, 22:00etan, izan ziren emankizunak. Zuzendaria, Veton Nurkolari, etortzekoa zen, baina espainiar Estatuak bere bisa onartzen ez duenez, ez zuen Donostiara etortzeko aukerarik izan. Asmoa ilegalki sartzea zen, Europa osoan lasai asko bidaia baitezake, Espainian izan ezik. Horregatik, etortzeak ekar zitzakeen ondorioen beldur, bisa galtzeko aukera zuelako, beldurtu egin zen azkenean. Hori zela eta, bideo txiki batean filmatutako ongietorri txiki bat erakutsi zuten.

'Oh, My home – Lost&Found'. Etxeari buruzko gogoeta, roulot eta poltsekin egindako instalazioa zen, Frantzia pasealekuan, RENFE tren-geltokiaren parean. Ixone Ormaetxe, Lalya Gaye, Saadia Hussainen eskutik egina, irailaren 29tik urriaren 1era bitarte 'etxea-etxegabea' kontzeptua zalantzan jartzea zuen xede. Baina emaitza beti desberdina izan ohi da. Alde batetik, gune fisikoa izan zuen, eta, bestetik, artistek, etxerik gabekoekin, performancea ere egin zuten. Programa hau Estokolmon inmigratoriantz bideratu zuten.

'In Transition'. Peñafloída, La Salle eta Uba zentroko gazte eta nerabeekin landutakoak, gaztarotik nerabezarorako trantsizio honetan oinarritutako ikuskizun eszeniko parte-hartzailea zen. Dantza, musika eta antzerkia nahasten zituen lana izaki, aurkezpen finala irailaren 29an ikuskizun gisa gozatu ahal izan zuten Ernest Lluch Kultur Etxean. Gazteak beraiek ziren mugimenduak proposatu zituztenak, eta, Nils Personne suediarrek, Kajsa Sandström dantzari suediarrek eta Borja Ruiz eszena-zuzendari bizkaitarrak parte hartu zuten.

'Birdhouse Gallery'. Asmo, desio eta nahiak txorietxe moduko galerietan islatutako proiektu-tailerra zen honakoa. Gazteei zuzendurikoa, Nedyalko Delchev eta Maciej Salamon artista bulgariar eta poloniarrek 11 eta 13 urte bitarteko eskola-haurrekin lan egin zuten, txorietxe txikiak eginez. Ez zen eskulangintza tailerra soilik, haurren amets eta asmoak batzen zituzten elkarrizketak baizik. Hala, ondoren gaztetxoek euren lan propioa garatzen amaitu zuten. Easo Institutu Politeknikoak esku hartu zuten eta umeak Amara Berri, La Salle eta Uba zentrotik zetozen. Txorietxeak Madril hiribidean erakutsi zituzten irailaren 29tik urriaren 2ra.

Honenbestez, proiektu hauekin guztiekin kultur arloan "Europar dauden erronka nagusienak jorratu ditugu: nazioarteko kolaborazioak, proiektu publikoak hiritarren inplikazioaz, tokiko testuinguruak", azaldu zuen 'Corners'eko Donostia 2016ko arduradunak. Nolanahi den,

Europar Kultur Hiriburuaz haratago joango dira, zalantzarik gabe, sare hauek guztiak. Izan ere, Torchen aburuz, 'Corners'ek duen balorea Kultur Hiriburuarekin lotuta egoteaz haratago joatea zen, hain zuzen: "Honek guztiak jarraikortasuna izango du etorkizunean; handitzen eta garatzen joango da 2016. urteaz gaindi. Jada 'Arthouse Gallery' proiektuan, esaterako, ari gara lanean 15 urteko gazteekin. Hemendik lau urtera 20 urte izango dituzte eta kulturari aktiboki loturik egongo dira jada".

Urrutira jo gabe, urtea amaitu baino lehen, jada zenbait proiektu sortu dira ekimen honetatik. Izan ere, "jada hasi baikara ere erresidentzia programak garatzen: Kroazian, Kultur Hiriburu izango baita 2020ean, eta, Timisoara, 2021ean". Hortaz, kulturaren amarauna aurrera doa etengabe, erpinak Europan barrena sartzen, kontinentean izkinak saretzen, txoko periferikoak batzen, ertz zokoratuak lotzen.